

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Edozein negoziotan gertatu ohi den bezala, ezinezkoa da enpresak berak kudeatzea azken produktuaren eskakizun tekniko, logistiko eta material guztiak. Hori dela eta, eta gizartean gertatu ohi den bezala, gure produktuaren zenbait fase hirugarren enpresa batzuen eskutan jarriko ditugu, honako fase hauetan.

Hasteko, kontendoreak eta prentsak ez ditugu guk ekoitziko; izan ere, gure espezialidadea konetendoreak eta prentsak uztartzea da. Hein horretarako, kontendoreak eta prentsak erosiko ditugu guk horiek montatzeko. Guretzat horren garrantzitsuak diren produktu horiek ekoitziko dituen enpresak gurekin elkarlanean arituko dira produktuak arrakasta izan dezan eta bi parteen hobe beharrez.

Produktuarekin jarraika, eta behin kontenedorea bere prentsarekin osatuta dagoenean, banaketa hirugarren enpresa baten eskutan jarriko dugu, guk ez dugulako horren dimentsionatuak diren piezak garraiatzeko adina baliabide. Merkatuan asko dira banaketa eta garraio zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak. Horrenbestez, prezioa hoberen eta merkeen eskaintzen digun enpresari emango diogu gure kontenedoreak banatzeko ardura.

Dena den, kontenedoreak banatzeak dakarren prozesu osoa ez dugu hirugarren baten eskutan jarriko; azken batean, gu izango gara organismo ezberdinei produktuaren onurak eta xehetasunak azalduko dizkiogunak. Behin oinarrizko lan hori eginda, banaketa enpresa izango da gainontzekoaz arduratuko dena.

Kanpo enpresekin ditugun harremanetaz aparte, gure artean ere eratuko da elkarlan-sozietate bat, denok materia ezberdinetan ditugun abileziak uztartu eta denon artean ahalik eta produktu eraginkorrena merkaturatuko dugulako.

Aurrez aipatutako guztia aintzat hartuta, argi dago guretzat ere bereziki garrantzitsuak izango direla sozietateak eta elkarlanean aritzea.